



2021eko AURREKONTUAK:


Prozesu parte-hartzailearen EMAITZAK



1.- Datu orokorrak:

Sarrera:

Mundu mailan bizitzen ari garen egoera dela eta, 2021eko aurrekontu parte hartzaileen diseinuan, aurreko urtearekiko berrantolaketa bat egin eta zuzeneko hartu emana ordezkatzuz, beste baliabide eta dinamikak aktibatu dira, 2021eko aurrekontu hauetan herritarren ahotsa jasota gelditu daiten eta datorren urteko egitekoetan lehenespena duten eremuak finkatu daitezen.



Prozedura:

Herriko etxebizitza guztietara parte hartzeko aukera eskaintzen duten agiriak bialdu dira, anonimoki iritzi eta iradokizunak jaso ondoren, Udalari jakinarazteko. Iritzi horien jasoketa modu errezean egiteko aukera desberdinak eskaini dira:

1.- Email bidez: pdf editableen aukerarekin, eta baita agiria bete ostean argazki bat bideratuta: partehartzea@bermeo.eus helbidera.

2.- Kultur Etxean, Berhaz bulegoan eta Liburutegian jarritako kutxetan, agiriak utzita.

1.- Datu orokorrak:



Jasotako inkesta kopurua:

Guztira, **101 erantzun** jaso dira, herriko gunee eta adin guztietako erantzunekin. Kutxetako aukera nahiago izan du herritarrak eta Berhaz bulegoa izan da erantzun gehien jaso dituen gunea. Email bidezko aukera izan da arrakastagutxien izan duena, honako emaitzekin:

Guneetan jasotako kopuruak:

- Berhaz: 40 agiri
- Liburutegi: 31 agiri
- Kultur Etxea: 22 agiri

Emailz: 8 erantzun

2021eko aurrekontuen ganeko iritzia eman eta ekarpenak egiteko, irailaren 25etik azaroaren 13ra arteko epea ireki da.

Etxebizitzetara bideratutako dokumentuaren lehen orrialdean, egoeraren berri eman eta ekimenaren helburua azalduta, atzekaldean modu errezean, arlo zehatzen lehenespena egiteko eta ekarpenen biderapena gauzatzeko, aukera eskaini da:


[illegible]

2.- Parte Hartzaileen PROFILA:




Sexua:

Parte hartzaileen gehiengoa emakumezkoa izan da: %58,8ko portzentaiarekin.



Adina:

Adin tarte ugariena, 46-65 urte bitartean dago, erdia baino gehiagoko portzentaiarekin (%51eko). 25 urtetik beherako parte hartzailearik ez da egon.




2.- Parte Hartzaileen PROFILA:



Gunea:


Zubiaur tar Kepa eta Bizkaiko Jaurerrian pilatzen da parte hartzaileen gehiengoa, Kurtzio, Txibitxiaga eta Alde Zaharra doaz horien ondoren.



3.- Arloen lehenespen orokorra:

Parte hartzaileen gehiengoak **berraktibazio ekonomikoa**, lehenestasunezko eremu moduan baloratu du. Eremu honek lortu izan du 1 eta 2ko puntu gehien. Honen ostean tarte batera, **irigarritasun eta mugikortasunaren** arloak eta jarriki **garbitasunak** lortu dabe lehenespen handiena.

Lehentasan maila baxuena, aurkeztutako eremuetan, aisialdi-kultura eta kirolaren eremuak jaso izan du.



4.- Adinaren arabera lehenespena




Adin tarte guztietan, lehenetasun handiena berraktibazio ekonomikoa dela ondorieztatzen den arren, bigarren lehenespen eremua desberdina da adinaren arabera:

46-65 urte bitartean: Irisgarritasuna de bigarren lehentasuna

25-45 urte bitartean: Aisialdia-Kultura-Kirola

>65: Garbitasuna

Adinaren arabera gehien baloratutako arloa



5.- Sexuaren arabera lehenespena:




Sexuaren arabera ere, desberdintasunak daude lehenesterakoan:

Gizonezkoak: Arlo soziala eta irisgarritasuna lehenesten duten bitartean,

Andrazkoak: Berraktibazio ekonomikoa eta garbitasuna jartzen dute guztiaren aurretik.

Kasu bietan, Aisialdia da lehenesterakoan azken postuan uzten dutena.



- 1.- Aisialdia
- 2.- Arlo soziala
- 3.- Berraktibazio ekonomikoa
- 4.- Garbitasuna
- 5.- Irisgarritasuna
- 6.- Segurtasuna

Ondorioak:

Parte hartzaileen gehiengoak, lehenesterakoan **berraktibazio ekonomikoa** nabarmendu du.

Parte hartzaileen artean **46-65 urte bitarteko emakumezkoa** da nagusitu den perfila.

Udalak proposatutako **sei eremuak, oso garrantzitsuak** dira parte hartzaileentzako eta horien inguruko ekarpen eta iradokizun ugari jaso dira.

Sei eremu horietaz gain parte hartzaileek honako **kexkak** agertarazi dituzte:

- Txakurrek eragindako zikinkeria

- Alde zaharra bultzatu eta aktibatzeke beharrizana

- Udaltzaingoaren oinezko presentzia nabarmentzea

- Lorezaintza eta mantenimedu lanak indartzea

Prozesu parte hartzaileetan **gazteen presentzia areagotzeko** hausnarketarako **aukera** ikusten da.